



**OSABIDEZKO PENSIOARI
BURUZKO BALDINTZAK
BETETZEN DIREN
ERANTZUKIZUNPEKO
DIERAZPENA**

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoaren bidez (<https://sede.seg-social-gob.es>) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota Cl@ve iraunkorrekkin. Identifikazio elektronikorako sistemarik ez baduzu, izapidea <https://run.gob.es/tramites> helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo <https://run.gob.es/trdcita> helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

Dibortziatuta edo judizialki bananduta dauden pertsonen alarguntza-pentsioa kobratzeko eskubidea izateko, Kode Zibilaren 97. artikuluan araututako osabidezko pensioa jaso behar dute, eta kausatzailearen heriotzarengatik iraungita. Horrez gain, kasu hauetan, alarguntza-pentsioa osabidezko pensioa baino handiagoa bada, azken horren zenbatekora heldu arte txikiagotuko da (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 220. artikulua).

Kasu horietan alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzen eta kuantifikatzen errazteko, eta eskatzaileak kausatzailearen heriotzarengatik iraungi den osabidezko pensio hori agiriz egiaztatzeko aukerarik ez izatea gerta daitekeenez, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkeztu behar du:

NIK..... NAN.....,daukadanak
AITORTZEN DUT, nire erantzukizunpean, honekin batera aurkezten dudan banantze judiziala edo dibortzioko epaiaren arabera,.....
jaunak/andreak hil aurretik bere konturako osabidezko pensio bat jasotzen zuela, eta adierazitako heriotza gertatu ondoren eskubide hori ez dela mantendu.

Halaber, **AITORTZEN DUT**, epaian ezarritako osabidezko pensioaren zenbatekoa eta han finkatutako eguneratze-arauak (markatu dagokiona),

- EZ direla** aldatu geroago.
- Aldatu direla** geroago, erantsitako agirietan egiaztatzen den moduan.

Halaber, adierazten dut badakidala Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari aipatutako osabidezko pensioa berraztertze nahitaez jakinarazi behar diodala, alarguntza-pentsioarekin bateraezina delako, eta betebehari ez badut betetzen, edo aitortzen hau faltsua bada, behar ez bezala jasotako prestazioak itzultzea eskatu ahal didatela.

..... (e)n, 20 (e)ko ren (e)(a)n

Sinadura,

Eskaera hau Internet bidez aurkeztuko baduzu, ez duzu inprimaki hau sinatu behar